

2. GAIKA

SAILKAPENA:

2.1 Sexu-genero sistema.

IZENA ETA ZENBAKIA:

Imajinatu...+AMIA.

HELBURUA:

Gure taldearen neutraltasun ezaren inguruan hausnartzea, espazio fisikoaren eragina aztertzea, rol eta estereotipoei buruz hitz egitea, generoaren gaierekiko gure taldeak dituen ahuleziak eta indarguneak ezagutzea.

DENBORA:

1. dinamika: Ordu bete (30 minutu taldeka+30 minutu denok batera).
2. dinamika: 45 minutu (talde osoa).

LEKUA:

Garrantzitsua da, espazio handia hobe, bi taldeek bata bestearengatik urrun lan egiteko modukoa.

TALDEAREN BALDINTZAK

Pertsona kopurua: 4 baino gehiago eta, aukeran, mistoa.

Taldearen egoera: Egonkortuta dagoen talde batekin egiteko aproposa.

AZALPENA:

1. dinamika

Bi taldetan banandu (alde batetik neskek eta bestetik mutilak). Taldeak oso handiak badira, talde txikiagoak egin ditzakegu.

Talde bakoitzak kartulina batean honakoa idatzi beharko du:

1. Nolakoa izango litzateke neskez osatutako gaztetxe bat?
2. Nolakoa izango litzateke mutilez osatutako gaztetxe bat?
3. Nolakoa izango litzateke gaztetxe ideala?

Galderari erantzuteko orduan, gaztetxe batean gertatzen, antolatzen eta kudeatzen diren ekimen eta gauza guztietan pentsatzea gomendatzen dugu (denbora, dirua, lehenetasunak, lekuak, harremanak, asanbladak, ekintzak...).

Gerora, talde handian denek batera hausnarketarako tarte hartuko dute. Horra gogoetarako galderak:

- Neskez eta mutilez osatutako balizko gaztetxeak berdinak al dira?
- Zer errepikatzen da eta zer ez?
- Zuek irudikatutako balizko gaztetxe horietan, zer nolako lekua izan dute topiko eta aurreiritziek?
- Eta nolakoa izango litzatke gaztetxe ideala (Beste kartulina bat osatu denon artean)? Honen ezaugarriak aurreko kartulinetan agertu al dira?

Bukatzeko, beste kartulina batean denon artean gaur egungo gaztetxea nolakoa den irudikatu behar dute.

- Zuen gaztetxea, zein kartulinatik dago gertuen?
- Zer falta zaio gaur egungo gaztetxeari ideala izateko?

2. dinamika

Denon artean genero harremanei buruzko AMIA jorratuko dugu. Hona hemen AMIAren egitura.

Kanpoko analisisia	Barne analisisia
<p>Aurkerak</p> <p>Zuen onurarako erabil ditzakezuen kanpo faktoreak (feminismoaren ekarpen ezberidnak, beste gaztetxeetako eredu onak...)</p>	<p>Indarguneak</p> <p>Taldeari bere helburuak lortzen lagun diezaioketen barne mailako ahalmenak (gaiari ekiteko gogoia, jendea hitz egiteko prest egotea..)</p>
<p>Mehatxuak</p> <p>Joera ez matxistak zaildu ditzaketeen kanpo faktoreak.</p> <p>Mehatxu hauek garaiz antzemanaz gero, saihestuak edota aldaketarako aukera bihurtu daitezke (jendartean dagoen matxismoa, parte hartze politikoa...)</p>	<p>Ahuleziak</p> <p>Barneko mugak dira , taldeak bere helburuak lortzeko oztopo bilakatu daitezkenak.</p>

Egindako AMIA gaur egungo egoera aldatzeko modu ezberdinetan baliatu dezakezue.

MATERIALA:

Kolore desberdinetako kartulinak (gutxienez 6), orri handi bat eta rotulkiak.

OHARRAK:

Gaztetxea adibidea baino ez da, beste edozein taldetan lantzeko egokia.

ITURRIA:

Álvarez Moles, Pili (2012). Movimientos sociales, relaciones de género y cultura. El caso de los gaztetxes en Euskadi.

<<http://www.emakunde.euskadi.net/u72-20010/es/contenidos/informacion/pub_publicaciones/es_def/adjuntos/B-3_2011.pdf>>